ARRIGORRIAGA-ABUSUKO SAIO GELA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

JARRAIBIDEAK

1. *Zerbitzuaren azalpena*.

Arrigorriagako Udalak bi saio gela ditu: bata Abusu Zentro Soziokulturalean dago, eta bestea, aldiz, Gaztegunean. Beren koordinazioa Gazteria Arloaren mende dago. Zerbitzu hau hori eskatzen duten musika taldeen eta pertsonen eskura dago.

Zerbitzu horren barruan honako ekipamenduak daude:

1) Gela intsonorizatua.
2) Ahotsen ekipoa eta bateria, taldeek duten materialaren osagarri gisa.
3) Musika tresnak eta anpliazio ekipoak gordetzeko armairuak (Abusu Zentro Soziokulturalean baino ez).

2. *Zerbitzuaren hartzaileak eta erabilera*.

Zerbitzua profesionala ez den eta/edo kontratazio zirkuitu profesionaletan parte hartzen ez duen edozein 14 urte gorako pertsonak edo musika taldek eskuratu ahalko du, jatorria edo estiloa edozein dela ere.

Talde bakoitzeko kideak baino ezin izango dira sartu saio gelara, NANa aurkeztuta.

Arrigorriaga udalerriko kideak dituzten taldeek lehentasuna izango dute eta beste udalerriko taldekideek osatutako taldeen kasuetan, bat behintzat Arrigorriagatarra izan behar da.

INSTRUCCIONES DE USO DE LA SALA DE ENSAYOS DE ARRIGORRIAGA-ABUSU

INSTRUCCIONES

1. *Descripción del servicio*.

El Ayuntamiento de Arrigorriaga cuenta con dos salas de ensayos, ubicada una en el Centro Sociocultural Abusu y la otra en el Gaztegunea, cuya coordinación depende del área de Juventud. Este servicio se pone a disposición de los grupos de música y personas que lo soliciten.

Dentro del servicio se incluyen los siguientes equipamientos:

1) Una sala insonorizada.
2) Batería y equipo de voces como opción complementaria al material propio de los grupos.
3) Armarios para almacenar instrumentos y equipos de ampliación (sólo en el Centro Sociocultural Abusu).

2. *Personas destinatarias y uso del servicio*.

Este servicio podrá ser disfrutado por cualquier persona mayor de 14 años o grupo musical, sin distinción de origen ni estilo, que no sean profesionales y/o que no participen en los circuitos profesionales de contratación.

Únicamente tendrán acceso a la sala de ensayos los componentes de cada grupo, bajo presentación del DNI.

Tendrán prioridad aquellos grupos cuyos miembros sean del municipio de Arrigorriaga y en el caso de grupos formados por miembros de otros municipios, al menos uno de los componentes deberá ser local.

3. *Zerbitzuaren presioak eta ordutegiak*.

Gela erreserbatzeko tarifak indarreko ordenantzari buruzkoak izango dira.

- 2 ordu – 3 €
- 12 orduko bonoa – 15 €
- 30 orduko bonoa – 30 €

Gela saio orduak hastean ordainduko da.

Asteko saio orduak gutxienez 2 eta gehienez 8 izango dira, berariazko kasuetan. Kide edo talde batek egun berean ordu bi baino gehiagorako egin ahal izango du erretserba, beti ere entsegu-gela aurretik hartuta ez badago.

Salbuespen gisa, saio denbora eskatzailearen beharrizanetara egokituko da (saio denbora laburragoak behar dituzten musika tresnak: tronpeta, kantua, txistua…).

Saio gelak irekitzeko ordutegiak honako hauek izango dira:

- Abusu Zentro Soziokulturala: astelehenetik ostiralera, 16:30etik 20:30era.
- Gaztegunea: astelehenetik igandera, 16:00etik 21:00etara. Larunbatetan, 11:30etik 13:30era.

4. *Lokala erreserbatzeko prozedura*.

Lokalak erreserbatzeko, honako prozedura hau jarraitu beharko da:

1) Taldeak aldez aurretik eman beharko du alta **zerbitzuaren erroldan**. Bertan taldekideen datu orokorrak eta zehatzak jasoko dira. Horretarako, taldekide guztien NANaren fotokopia aurkeztu behar da, eta adingabe osatutako talde kasuetan, aita, ama edo tutorea arduradun moduan agertuko da altan emoteko agirian.

3. *Precios y horarios del servicio*.

Las tarifas para la reserva de la sala serán la correspondiente a la ordenanza en vigor.

- 2 horas – 3 €
- Bono de 12 horas – 15 €
- Bono de 30 horas – 30 €

Se pagará la sala al comenzar las horas de ensayo.

El mínimo de horas de ensayo semanales será de 2 horas y el máximo de 8 horas, en casos específicos. Una persona o grupo podrá exceder de las 2 horas en un mismo día, siempre y cuando el espacio no esté reservado con anterioridad.

Excepcionalmente, el tiempo de ensayo se adecuará a las necesidades de la persona solicitante (instrumentos que necesitan menos tiempo de ensayo: trompeta, canto, txistu…).

Los horarios de apertura de las salas de ensayos serán:

- Centro Sociocultural Abusu: de 16:30 a 20:30 horas, de lunes a viernes.
- Gaztegunea: de 16:00 a 21:00 horas, de lunes a domingo. Sábados también de 11:30 a 13:30 horas.

4. *Procedimiento de reserva del local*.

Las reservas de locales se efectuarán según el siguiente procedimiento:

1) El grupo deberá previamente estar dado de alta en el **censo del servicio**, que recoge tanto los datos generales como los particulares de sus componentes. Para ello, se deberá presentar la fotocopia del DNI de todos los integrantes del grupo y en los casos en los que los grupos estén formados por menores, el padre/madre o tutor/a firmará y constará como responsable en la solicitud de alta.

2) Edozein pertsonak edo talde bateko edozein kidek erreserbatu ahalko du gela, zentrora joanez edo telefonoz deituz, eskatutako datuak adierazita (izena, NANa, tel.zk.).
3) Arau orokor gisa, erreserbak 15 egunetarako egingo dira, gehienez, eta uneko hilaren barneko egunetarako erreserbak baino ezin izango dira eskatu, hil bakoitzeko azken astean izan ezik.
4) Erreserba denbora 2 edo 4 ordukoa izan ahalko da eguneko, berariazko beharrizanak dituzten kasuak izan ezik (irakurri 3. puntuaren amaiera).
5) Erreserbaren egiaztapena erreserba egiten duen zentroko datu-basean erregistratuko da.
6) Eskatzaileak egoera-orria sinatu beharko du saioaren aurretik eta ondoren, zentroko langileen ikuskapenpean (**1. eranskina**). Horretan jasotako ekipoak, beren egoera eta gorabeherak adieraziko dira, eta, horrela, zerbitzuaren kalitateari eragiten dion edozein arazo aurkitu ahalko da. Antzemandako gorabeherak zentroko langileei jakinaraziko zaizkie berehala.

5. *Erreserbak gorde eta baliogabetzea*.

Erreserba egin denean, dagokion zentroak erreserba gordeko du, hori eragozten duen inguruabar argudiaturik gertatzen ez bada. Halakorik gertatzekotan, ahalik eta arinen jakinaraziko zaio erreserba egin duen pertsonari.

Taldeak erreserba baliogabetu nahi badu, ez da erabili gabeko ordu-kopurua murriztuko, betiere, gutxienez, 48 ordu lehenago baliogabetu bada. Bestela, hasieran erreserbatutako ordu-kopurua kenduko da, gela erabili izan balitz legez, eta dagokion zehapena ezarriko da (hutsegite arina).

2) Cualquier persona o componente de un grupo podrá efectuar una reserva de sala personándose en el centro o telefónicamente, facilitando los datos que se le requieran (nombre, DNI, tfno.).
3) Como norma general, las reservas se realizarán para un máximo de 15 días y sólo podrán solicitarse reservas para fechas dentro del mes en curso, excepto durante la última semana de cada mes.
4) El tiempo de reserva podrá ser de 2 ó 4 horas completas por día, a excepción de los casos con necesidades específicas (leer el final del punto 3).
5) La confirmación de la reserva se registrará en la base de datos del centro al que corresponda la reserva.
6) La persona o grupo solicitante deberá firmar un estadillo antes y después del ensayo bajo la supervisión del personal del centro (**Anexo 1**), en el que se reflejen los equipos recibidos, su estado e incidencias; y poder localizar de esta manera cualquier anomalía que incida en la calidad del servicio. Las incidencias observadas serán comunicadas de inmediato al personal del centro.

5. *Conservación y anulación de las reservas*.

Una vez efectuada la reserva, el centro correspondiente mantendrá siempre la reserva en tanto no concurra alguna circunstancia argumentada que lo impida, lo que será puesto en conocimiento de la persona que la efectúa con la mayor antelación posible.

La anulación de una reserva por parte del grupo no dará lugar a deducción en su saldo de horas siempre que esta sea efectuada con una antelación superior a 48 h. En caso contrario, será descontado íntegramente el número de horas inicialmente reservadas, como si se hubiera hecho uso de la sala

además de la consiguiente penalización (falta leve).

6. *Erreserbaren erantzukizuna eta ekipamenduaren erabilera*.

Erreserba egiten duen pertsona edo taldea erabilera jarraibide hauetan xedatutakoaren eta, oro har, mantentze-lanei eta erabilera egokiari eragiten dieten aldeen erantzulea izango da. Halaber, lokaletako erabiltzaileak eta zerbitzuaren materialak errespetatu beharko ditu, baita zentroko langileak eta gainerako erabiltzaileak ere.

Erabiltzaile guztiek zerbitzuaren ekipoak eta instalazioak ahalik eta neurri handienean zainduko dituzte, materiala zaindu eta errespetatuta.

Gela eta horretako ekipoak aurkitu diren bezala utzi beharko dira.

Musika tresnak ez dira anplifikazio kaxara konektatu behar.

Guztiz debekatuta daude honakoak: zerbitzuko ekipamendua txarto erabiltzea, ordeztea, ebastea, desmuntatzea, aldatzea, lekualdatzea, eta, orokorrean, berau hondatu edo desagerrarazteko asmo gaiztoa duen edozein jarduera.

6. *Responsabilidad de la reserva y trato del equipamiento*.

La persona o grupo que realiza la reserva será responsable de todo lo dispuesto en estas instrucciones de uso y, en general, de aquello que afecte al mantenimiento y el buen uso. Así como el respeto a las personas usuarias de los locales y materiales del servicio, como al personal laboral y demás personas usuarias del centro.

Todas las personas usuarias velarán por el mayor grado de conservación de los equipos e instalaciones del servicio, cuidando y respetando el material.

Se deberá dejar la sala y los equipos de la misma manera en la que fueron encontrados.

No se deben enchufar instrumentos a la caja de amplificación.

Queda totalmente prohibido el mal uso, cambio, hurto, desmontaje, modificación, traslado y, en general, cualquier práctica malintencionada que pueda llevar a su deterioro o desaparición del equipamiento del servicio.

7. *Ekipoen gordailua (Abusu Zentro Soziokulturalean baino ez)*.

- Alta emanda dauden eta Abusu Zentro Soziokulturaleko saio gela sarritan erabiltzen duten taldeek armairu bat erabiltzea eskatu ahalko dute. Horretan musika tresnak eta anpliazio ekipoak baino ezin izango dituzte gorde, erabat debekatuta baitago bestelako materialak gordetzea.
- Arrigorriagako Udalak ez du erantzukizunik hartuko biltegiratutako materialarekin gertatzen denaren inguruan, ezta ebasketa, lapurreta edo narriadura dagoenean ere.
- Gela erabiltzeari uzten dioten taldeek beren materialak batu, eta esleitutako armairuak hutsik utzi beharko dituzte. Bestela, Udalak horiek kenduko ditu.

8. *Jarduera eta jarrera gogaikarriak*.

Erabat debekatuta dago gelaren barruan erretzea eta alkoholdun edariak hartzea, animaliak sartzea eta, oro har, zerbitzuaren gainerako erabiltzaileentzat gogaikarria izan daitekeen eta zentroko araudi orokorra urratzen duen beste edozein jarduera.

9. *Erabilera jarraibide hauek onartzea*.

Saio gelaren zerbitzua erabiltzeak badakar erabiltzaileak jarraibide hauek onartzea eta jarrera arduratsuak bereganatzeko konpromisoa hartzea.

7. *Depósito de equipos (sólo en el Centro Sociocultural Abusu)*.

- Los grupos dados de alta que utilicen con asiduidad la sala de ensayos del Centro Sociocultural Abusu, podrán solicitar el uso de un armario, en el cual sólo se podrán almacenar instrumentos y equipos de ampliación, quedando totalmente prohibido el depósito de otro tipo de materiales.
- El Ayuntamiento de Arrigorriaga no se hará responsable de lo que ocurra con el material almacenado, ni tan siquiera en casos de hurto, robo o deterioro.
- Los grupos que dejen de ensayar en la sala, deberán recoger sus materiales y dejar libres los armarios asignados. En caso contrario, el Ayuntamiento procederá a su retirada.

8. *Actividades y actitudes molestas*.

Queda totalmente prohibido fumar y tomar bebidas alcohólicas dentro de la sala, introducir animales y, en general, cualquier actividad que pudiera suponer molestias para el resto de personas usuarias del servicio, y que contradiga la normativa general del centro.

9. *Aceptación de estas instrucciones de uso*.

El uso del servicio de la Sala de Ensayo implica por parte de la persona o grupo usuario, la aceptación de estas instrucciones, y el compromiso a adquirir conductas responsables.

10. *Zerbitzua behar bezala erabiltzeko gomendioak*.

- Soinu ekipoko elementuren edo erregistroren bat aldatu nahi bada, aldez aurretik argazkia egitea gomendatzen da, saioaren amaieran aldatutakoa lehengoratzeko.
- Gelan edo ekipamenduan dagoen edozein arazoren berri ematea ahalik eta lasterren zentroko langileei, eta zehapenak jasotzearen beldur ez izatea, zerbitzua behar bezala erabiltzen denean.
- Zehapena ekar dezakeen elementurik edo objekturik (alkoholdun edariak...) ez sartzea gelan.

10. *Recomendaciones para un buen uso del servicio*.

- Si vamos a modificar algún elemento o registro del equipo de sonido, se aconseja tomar previamente una foto para que a la finalización de la sesión se vuelva a su estado inicial lo modificado.
- Avisar cuanto antes de cualquier anomalía en la sala o equipamiento al personal del centro y no tener miedo de ser sancionado/s cuando se hace un uso correcto del servicio.
- No introducir en la sala ningún elemento u objeto susceptible de sanción (latas de bebidas alcohólicas...).